

# **EREMU URRIKO HIZKUNTZEN EGOERA EUROPAR BATASUNEAN**

Amaia Aranaga Libano

## **AURKIBIDEA**

- 1. SARRERA**
- 2. EUROPAR BATASUNEKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNA**
- 3. EUROPAR BATASUNA: SORRERA, ERAKETA ETA HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK.**
- 4. EUROPAKO ITUN KONSTITUZIONALA**
- 5. EUROPAR BATASUNAK HIZKUNTZEN ALDE BULTZATUTAKO EKINTZAK**
  - A. ERREGIO EDO GUTXIENGO HIZKUNTZEN EUROPAKO ITUNA (1992)**
- 6. EUSKARA EUROPAR BATASUNEAN**
- 7. ONDORIOAK. EUROPAR BATASUNEAN ABIAN JAR DAITEKEEN HIZKUNTZA-POLITIKA**
- 8. BIBLIOGRAFIA**

*Deklarazio honen funtsean dago printzipio bat zeinaren arabera  
hizkuntz komunitate guztien eskubideak berdinak diren  
kontuan izan gabe bere kontsiderazio juridiko edo politikoa den  
hizkuntza ofizialarena, erregionalarena edo minoritarioena.  
Hizkuntza erregional edo minoritario bezalako izendapenak  
ez dira testu honetan erabiltzen zeren eta,  
kasu batzuetan hizkuntza erregional edo minoritariotzat aitortua izateak  
eskubide hauek egikaritzea erraz badezakeen ere,  
horiek eta antzeko izendapenak usuegi erabiltzen dira  
hizkuntz komunitate baten eskubideak murrizteko asmoz.  
(Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, 5. artikulua).*

## 1. SARRERA.

“Eremu urriko hizkuntzen egoera Europar Batasunean” izenburua daraman egitasmo honek bilketa lan bat izan nahi du. Europar Batasunean egun existitzen den eta antzinatik datorkion hizkuntza-aniztasunaren berri emateaz gain, aniztasun hori kudeatzeko moduak hona ekarri nahi ditu. Erromako Itunetik Europako Itun Konstituzionalera arte.

Lana Europako hizkuntza-aniztasuna aipatzen hasiko da. Aniztasun hau deskribatzea izango da lehenengo egitekoa, alegia. Europako hizkuntza-familiak eta hiztun-kopuruaren araberako sailkapenak eginez.

Europar Batasunaren sorrera eta eraketa labur aipatzeari garrantzitsu iritzi diot, ondoren, aurrerago erabiliko diren erakunde izen, betebeharrak eta abarrak argi izateko, eta horrela azalpenak argiagoak izango direlakoan. Eta honekin batera, Europar Batasuneko hizkuntza-irizpideak aztertu ditut orokorki bigarren zati honetan.

Hirugarrenik, zehaztasun gehiagoz aztertu dut alde kritiko batez Europako Itun Konstituzionala, Europar Batasuneko politikari dagokionez daukagun azkenengo ereduak baita. Ondorioz, ezinbesteko erreferentzia gure azterlanerako.

Lanaren azkenengo zatietan Europar Batasunetik eremu urriko hizkuntzen alde hartutako neurriak azaldu ditut, eta ondoren zehazki euskararen inguruan abian jarritakoak laburki aipatu ere.

Azkenik, ondorio moduan etorkizunari begira egin beharreko zenbait ekimen aipatzen dira, Europan behingoz etengabe urratzen ari diren hizkuntza-eskubideak berma daitezen.

## 2. EUROPAR BATASUNeko HIZKUNTZA ANIZTASUNA

Europako historiara jotzen badugu, Goiz Erdi Arotik hasita, bertako biztanleen hizkuntza aniztasunaz konturatzen gara. Orduko biztanleek hainbat hizkuntza hitz egiten zuten. Denak ziren ahozko hizkuntzak, latina alde batera utzita, noski. Hala ere, denborarekin ahoz bakarrik erabiltzen ziren herri-hizkuntza guzti horiek garatuz joan ziren: literatura-mailan eta maila politikoan erabiltzen hasi ziren, idatziak izan ziren arte. Horrela, gutxinaka-gutxinaka, latina ordezkaturik. Herri-hizkuntza horien garapen eta sustapenean zer esanik izan zuen inprentaren asmakizunak batetik; eta XIX.mendean nagusitu zen hizkuntza-nazionalismoak, bestetik. Hortaz, ikusten dugu Europari hizkuntza-aniztasuna antzinetik datorkiola<sup>1</sup>.

Iragana alde batera utzita, gaur egun ere hizkuntza aniztasun horren lekuko gara. Ez da erraza izaten, hala ere, Europan zenbat hizkuntza bizi diren zehaztea, ezta Europan zenbat hizkuntza mintzo diren ere ez. Hainbat eredu agertzen zaizkigu Europako hizkuntza zerrendak egiterako orduan. Berezko hizkuntza komunitateei dagokienez, 60 inguru direla esan ohi da. Gainera, Euromosaic<sup>2</sup>-en azterketak 32 hizkuntza gutxiagotu bildu zituen, eta hauei 2004 eta 2007.urteetan gertatutako Europar Batasunaren zabalkundearen sartutako Estatu berrietako hizkuntzak ere gehitu behar dizkiogu.

---

<sup>1</sup> SIGUAN, M. (2003): *"Hizkuntza ofizialak eta hizkuntz aniztasuna Europar Batasunean"*, Munduko hizkuntzen amarauna.

<sup>2</sup> EUROMOSAIC 1992.

Bestalde, Europako Itun Konstituzionalak, aurrerago ikusiko dugun moduan, 23 hizkuntzei baino ez die aitortzen konstituzio-hizkuntza izaera eta 1/1958 araudiaren arabera 23 dira Europar Batasuneko hizkuntza-ofizialak. Hau da, Europar Batasuna 27 Estaturik osatu arren, hizkuntza-ofizial gutxiago dago, Belgikan frantsesa eta nederlandera baitira hizkuntza-ofizialak, Zipren grekera eta turkiera, eta horretaz gain, irlandarari ez zaio izaera ofizialik aitortu. Aipatutako ezaugarriok kontuan harturik, luxenburgera eta gaelikoa ere izan behar lukete hizkuntza-ofizial, baina Europako Elkarte Ekonomikoaren sorreratik ez zitzaizkien status hori aitortu.

Zalantza barik, hizkuntza-ofizial zein gutxiagotu izanda ere, hizkuntza-mosaiko garrantzitsuaren aurrean gaude. Dena den, hau aski subjektiboa da. Izan ere, kopuru horren garrantzia txikitzen da munduko sei mila hizkuntzak kontuan hartzen baditugu. Patxi Juaristik berak dioen moduan<sup>3</sup>, Europar Batasunean munduko hizkuntzen %1 hitz egiten da, argi dago, beraz, Europar Batasunetik kanpora dagoela munduko hizkuntzen ondarearen parte garrantzitsuena. Hizkuntza horietako gehienak, aldiz, oso jende gutxik hitz egiten ditu, ez dira idazten eta ez dute garrantzi politikorik. European, ordea, hitz egiten diren hizkuntzak, gehienak behintzat, berme politiko nabarmenekoak dira.

Aniztasun hau ematen bada ere, European hitz egiten diren hizkuntza gehienek jatorri bera dute, hizkuntza-familia berekoak dira, hain zuzen ere.

Hizkuntzalari asko saiatu da ezagutzen diren hizkuntzak familia ezberdinetan sailkatzen, eta horrela, euron guztion senidetasuna frogatzen. Horrela, finkatu daiteke zein hizkuntza den gurasoa eta zein ostekoa, zein den aurretikoa eta zein ondorengoa<sup>4</sup>.

K.a.ko bigarren milurtekoan zabaldu zen Indian eta European zehar hizkuntza-talde garrantzitsu bat. Lurralde horien jabe egin ziren herriak "indoeuopar" izenez ezagutzen dira.

Indoeuopar hizkuntzak multzo bitan banatzeko ahalegin teorikoa egin zen, 100 zenbakiaren kontzeptua zelan adierazten duten irizpidetzat harturik: satem multzoa

---

<sup>3</sup> JUARISTI, P. (2006): JAGON JARDUNALDIAK. Bilbo.

<sup>4</sup> AREJITA, A., MANTEROLA, A. eta OAR-ARTETA, S. (2007): "Euskararen geografia historikoa". Eusko Jaurlaritza.

batetik (iraniarra eta indiarra barruan), eta centum multzoa bestetik (latina, grekoa, hizkuntza zeltak eta germanikoak barru hartzen dituenak) bereizi izan dira.


Indoeuropar hizkuntzak bata besteagandik guztiz urrun dauden lurraldeetan egiten dira, eta antzekotasun garbiak badira euren artean, enbor beretik sortuak direlako da, ez geroagoko elkarreraginen ondorioz.

Indoeuropar familiako Europako hizkuntzen sailkapen nagusia honakoa da: grekoa, italiar hizkuntzak (latina, eta beretik sortuak diren italiara, gaztelania, frantsesa, katalana, galego-portugesa, errumaniera), hizkuntza zeltak (gaelera, bretoiera, galesa, zeltera hispaniarra...), germaniar hizkuntzak (alemanaz gainera, ingelesa, daniera, nederlandera, suediera...), eslaviar hizkuntzak (errusiera, serbokroaziera, bulgaria, poloniera...) eta baltikoak (letoniera, lituaniera).

Indoeuroparrak etorri aurretik ziren hizkuntzak ia guztiz aldentu ziren; europar lurraldean nagusitu ziren herri berriek euren hizkuntzak ezarri zituztelako. Indoeuroparren aurretiko hizkuntzen artean, gutxi izan ziren iraun zutenak: etruriera, iberiera, fino-ugriar adarra eta, azkenik, euskara.

Laburbilduz, Europako kontinentean barrena gertatu zen lehenengo hizkuntza-uholdearen ondoren, indoeuropar enborreko hizkuntza-familiak nagusitu ziren.

Bigarren hizkuntza eraso nagusia erromanizazioak eta latinizazioak berekin erakarriko duena da.



Hizkuntzen jatorria alde batera utzita, hizkuntzak elkarren artetik bereizteko beste irizpide bat jarraituko dugu oraingoan. Hizkuntzak sailkatuko ditugu duten hiztun kopuruaren arabera, sailkapen honek lagunduko baitigu gero, Europako hizkuntzen artean dauden status diferentziak ulertzen. Ondoren kopuru hauek erakusten dituen taula ikusiko dugu. Hala ere, kontuan hartzekoa da bertan agertuko den informazioa gutxi gora-beherakoa izango dela; izan ere, Europako herrialde gutxitan egiten baitira hizkuntza-eroldak herrialde mailan<sup>5</sup>:

<b>10 MILIOI LAGUN BAINO GEHIAGOK HITZ EGITEN DITUZTEN HIZKUNTZAK</b>	alemaniera (90 milioi), frantsesa (60 milioi), ingelesa (64 milioi), italiera (58 milioi), espainiera (40 milioi), poloniera (39 milioi) nederlanderak (19 milioi)
---	--

<sup>5</sup> SIGUAN, M. (2004): "La política lingüística de la Unión Europea". Real Instituto Elcano.



	(39 milioi), nederlandera (19 milioi), hungariera (11 milioi), grekoa (10 milioi), txekiera (10 milioi).
<b>MILIOI 1 ETA 10 MILIOI ARTEKO LAGUNEK HITZ EGITEN DITUZTEN HIZKUNTZAK</b>	bulgariera (8,3 milioi), katalana (7 milioi), eslovakiera (5,4 milioi), finlandiera (5,2 milioi), daniera (5 milioi), moldaviera (4,5 milioi), lituaniera (3,7 milioi), letonieta (2,4 milioi), galegoa (2,4 milioi), okzitaniara (2,1 milioi), esloveniera (2 milioi), estoniera (1,6 milioi), sardiniera (1,3 milioi).
<b>MILIOI 1 LAGUN BAINO GUTXIAGOK HITZ EGITEN DITUZTEN HIZKUNTZAK</b>	euskara (600.000), galesa (600.000), maltera (400.000), frisiera (400.000), luxenburgera (350.000), bretoiera (180.000), korsikera (123.000)...
<b>100.000 LAGUN BAINO GUTXIAGOK HITZ EGITEN DITUZTEN HIZKUNTZAK</b>	friulera (80.000), arumanera (60.000), samiera (25.000), ...

Hiztun-kopuruaren arabera banatzeaz gain, erabilera motaren arabera ere bana daitezke Europako hizkuntzak. Horrela, batzuk literatur tradizio handikoak dira, beste batzuk ez; batzuk, gizarte-esparru guztietan erabiltzen dira, beste batzuk ez eta abar.

Azkenik, hizkuntza guztiek ez dute egoera politiko eta legal bera. Estatuak politikoki antolatzen hasi zirenetik, hizkuntzak ofizial eta ez-ofizialen artean bereizteko joera izan da. Irizpide hau da, hain justu, guri interesatzen zaiguna egitasmo honen eraketan, horrek ematen baitio hizkuntzari bizirauteko, indartsu izateko edota hiltzeko ahalmena. Dena den, Europar Batasuneko hizkuntza-irizpideak aztertzen hasi aurretik eta dagokion garrantzia emateko, luze joko baitigu honek, gaia ulertzen lagunduko diguten puntu pare bat estudiatzeari garrantzitsu deritzot lehendabizi. Europar

Batasunaren sorrera eta eraketa, alde batetik; “hizkuntza-ofizial/ez-ofizial” terminologiaren inguruko hainbat zehaztasun, bestetik.

Halarik ere, puntu honi heldu baino lehen, aurreko ildoari jarraiki, aipamen txiki bat egitea gustatuko litzaidake. Hots, aipatutako hizkuntza aniztasun horren bestaldean, Europan, elkar ulertzeko hizkuntza komunak ere erabili izan direla, alegia. Homogeneizaziorako joera ere hor dago, eta gaur egun indar handia dauka. Latina izan zen lehenengo hizkuntza komuna. Baina denboraren poderioz beste hainbat hizkuntzek jarraitu diete latinaren urratsei. Hala nola, frantsesa edota xede horrekin baliatu izan diren zenbait hizkuntza artifizial. Elkar ulertu beharra, globalizatutako mundu honetan, gero eta ezinbestekoagoa da. Hizkuntza komunen beharra gero eta beharrezkoagoa da, duda barik. Beraz, bi hizkuntza-joera nagusitzen ari dira egun: bata, hizkuntza komunak erabiltzekoa; hizkuntza-aniztasunari eustekoa, bestea. Gai honetan sakontzeko, benetan baliagarria da Patxi Juaristik<sup>6</sup> burutu duen lana. Europar Batasuna sortu zenetik tira-bira asko sortu da gai honen inguruan. Hau ez da gure aztergaia, ordea.

### **3. EUROPAR BATASUNA: SORRERA, ERAKETA ETA HIZKUNTZA IRIZPIDEAK.**

1957ko martxoaren 25ean, Erromako Ituna sinatu zuten Alemaniako Errepublika Federalak, Frantziak, Herbeherak, Luxenburgok, Belgikak eta Italiak. Itun hau Europar Batasuna eraikitzekeo prozesuan aurrerapauso garrantzitsua izan zen; bertatik sortu baitzen Europako Ekonomia Erkidegoa, 1958ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zena.

Hasiera batean, eta izenak argi erakusten duen moduan, helburu ekonomikoarekin sortu zen, europar merkatu komuna eratzeko, alegia. Ez zen egon, beraz, inolako xede linguistikorik. Askatasun, demokrazia, giza-eskubideekiko eta herrien identitatearekiko errespetuan oinarrituta eratu zen. EEEan zenbait aldaketa burutzeko eta berau osatzeko

---

<sup>6</sup> JUARISTI, P (2001).: *“Euskal Herria Globalizazioaren Aurrean”*. Euskaltzaindia-BBK. Bilbo.

Europako Akta Bakarra idatzi eta berretsi zen. 1992-93.urteera arte ez zen gaur egun Europar Batasuna izenez ezagutzen duguna sortu, Maastrichteko hitzarmenaren ondoren. Ordutik aurrera eta gaur egunera arte aldatuz eta zabalduz joan da, bere barne Estatu berriak hartuz, Amsterdango eta Nizako Itunen bidez, besteak beste:

- 1973. Irlanda, Danimarka eta Erresuma Batua.
- 1981. Grezia.
- 1986. Espainia eta Portugal.
- 1990. Alemaniako Errepublika Demokratikoa, Mendebaldeko Alemaniarekin bildua.
- 1995. Austria, Finlandia eta Suedia.
- 2004. Estonia, Letonia, Lituania, Txekiar Errepublika, Txipre, Malta, Eslovenia, Hungaria, Eslovakia eta Polonia.
- 2007. Bulgaria eta Errumania.

Europar Batasuna ez du erakunde bakar batek osatzen, ordea. Erakunde ezberdinen elkarlanak ahalbidetzen du egun Europar Batasuna izenpean ezagutzen dugunaren existentzia<sup>7</sup>:

---

<sup>7</sup> EUROPAKO BATASUNAREN ERAIKUNTZA. [www.hiru.com](http://www.hiru.com).



- **Europako Batzordea:** Europar Batasunean erabakiak hartzen dituen erakundea. Bruselan eta Luxenburgon du egoitza. Estatu espainiarra, Frantzia, Alemania, Italia eta Erresuma Batuak bi kide dituzte bakoitzak eta beste herrialdeek ordezkaritza bakarra dute. Bere funtzioa komunitatearen interesak defendatu, diruak kudeatu eta hitzarmenak bete daitezzen lan egitea da. Beraz kompetentzia legegile eta exekutiboak ditu.
- **Ministroen Kontseilua:** Europar Batasunean erabakiak hartzen dituen erakundea. Egoitza Luxenburgon du eta herrialde kide bakoitzaren kanpo ministroez osatua dago, nahiz eta gai espezifikoak lantzerakoan gai horri dagozkion ministroak joan daitezkeen. Kontseiluaren lehendakaritza sei hilabeteko txandakatzen da kide diren herrialdeen alfabeto-ordenaz.
- **Justizia Auzitegia:** Erakunde judiziala. Egoitza Luxenburgon du eta estatu kide bakoitzeko epaile bat eta txandakatzen den beste batek osatzen dute. Hitzarmenen betetzeari buruz eta legezko beste gaiei buruz erabakitzen du.

- **Europako Parlamentua:** Kontrolerako erakundea sufragio unibertsal bidez bost urtero aukeratua. Komisioaren erabakiak ezeztatu ditzake, aurrekontuak atzera bota eta hitzarmenak berrikusi. Bere atribuzioak, dena dela, mugatuak dira.

Europako Kontseiluak aho batez onartzen dituenak dira **hizkuntza ofizialak**. Kodeatutako hizkuntzak direla ulertzen da, idazten direnak gizarte-esparru guztietan; baita lege eta administrazio-esparruetan ere. Gainera, hizkuntza hauen rola oso garrantzitsua da hezkuntzan, hedabideetan eta informatikan. Beti bezala ezin dugu orokortu, ordea. Hiztun-kopuruaren arabera ezberdintasun asko baitago bakoitzaren erabilerari dagokionez, eta hauen artean bereiz ditzakegu:

- Nazioarteko komunikaziorako ikasten diren hizkuntzak, Estatuetak mugetatik kanpokoak.
- Estatu barruko beharrianak betetzen dituztenak esparru guztietan, baina proiektio gutxikoak mugetatik kanpo.
- Ofizialak izan arren, euren hiztun-kopuru urria dela eta idatziz ekoizpen txikikoak.

Oro har, hizkuntza ofizial guztiak lan hizkuntza ere badira. Hizkuntza ofizialak direnez, hizkuntza horretan bertan argitaratzen dira itun, araudi, barne agiri zein tramitaziozkoak. Eta beraz, organo kolegiatuetak bilera guztiek dute aldibereko itzulpen zerbitzua. Espainiak, lau hizkuntza ofizial izan arren, gaztelaniarentzat soilik eskatu zuen Batasunean hizkuntza ofizial izateko estatutua.

Zonalde edota eskualde batzuetan **hizkuntza koofizialak** onartzen dituzten Estatutak daude: Espainia, Danimarka, Herbeherak eta Italia. Batasuneko lau estatuk hizkuntza ofizial anitz izan beharrean, hizkuntza ofizial bakarra dute, baina estatuko zonalde batzuetan koofizialtasuna onartzen zaie hizkuntza batzuei. Adibidez, katalana, galiziera, euskara, faroeera, galesa, sardiniera, friuliera edo ladinera hizkuntza koofizialak dira estatuaren zonalde batzuetan. Ofizialtasuna onartzen zaion hizkuntzak nolabaiteko babes legala dauka, baina horrek ez du esan nahi hizkuntzok etorkizun argia dutenik, Estatuak euron aldeko politika sendoak bultzatzen ez badituzte, behintzat. Nahiz eta talde honetako Estatuak hizkuntza batzuei koofizialtasuna onartzen dieten Estatuko zonalde batzuetan, azpimarratzekoa da hauetariko estatu batzuk bereizketak egiten dituztela hizkuntzen artean. Horrela, ofizialtasuna eskaintzen diote hizkuntza batzuei eta ukatu beste batzuei. Adibidez, euskara, katalana, okzitaniera eta galiziera

ofizialak dira Espainian baina asturierara ez da ofiziala. Hortaz, hauek nahiz eta estatu-hizkuntza ez izan, euren lurraldean koofizialtasun egoeraz gozatzen duten hizkuntzak dira, lege eta administrazio-erabilera dute eta garrantzi handia dute hezkuntzan normalean. Hona hemen zenbait adibide:

1. Euskara (750,000)
2. Eskoziako gaelikoa (67,000)
3. Galesera (500,000)
4. Faroeera (45,000)
5. Franco-Provenzera (70,000)
6. Frisiera (362,000)
7. Friuliera (600,000)
8. Ladinera (27,500)
9. Meänkieli (30.000-70.000)
10. Mirandesera (10,000)
11. Samiera(30,000)
12. Sorbiera (30,000)
13. Yiddish

Beraz, baditugu: hizkuntza ofizial bakarria onartzen duten estatuak (Frantzia, Lituania, Letonia, Estonia, Polonia, Eslovakia eta Grezia), eta zonalde edota eskualde batzuetan hizkuntza koofizialak onartzen dituzten estatutak (Espainia, Danimarka, Herbeherak eta Italia).

Ondorioz, onartuak ez diren, hots, status ofizial edota koofizialik ez duten hizkuntzak ere badaude. **Hizkuntza ez-ofizialak**. Denetarik aurki dezakegu zaku handi honen barnean. Estatuak nolabaiteko babesa eskaintzen dieten hizkuntzen kasua, koofizialak ez izan arren. Estatuak onartzen ez dituen hizkuntzak ere badira. Eta debekatuta dauden hizkuntzen adibiderik ere ez da falta.

Beraz, puntu honetara ailegatuta, Europar Batasunaren sorrera, eraketa eta hizkuntza-ofizial/ez-ofizilei buruzko terminologia argituta, goazen bada, egitasmoaren

gaia jorratzera. Hau da, Europar Batasuneko **hizkuntza-irizpideak** aztertzeari ekingo diogu.

Europako Ekonomia Erkidegotik Europar Batasunerako jauzian hanbat Itun aipatu ditugu: Erromako Ituna, Europako Akta Bakarra, Masstricht-eko Ituna, Amsterdamgo Ituna, Nizako Ituna eta Europako Itun Konstituzionala. Baina hauek hizkuntzaren inguruko aipuak baino ez zituzten jaso. Erakundearen hizkuntza irizpideen inguruko aipuak, hain zuzen ere. Guztietan hizkuntzaren gaia modu berean aztertzen da: ez da ofizialtasunaren inguruko aipurik egiten, eta Itunon bertsio ofizialak izango dira erreferentzia. Hots, zein hizkuntzatan idatzita egon, hizkuntza horretan zuzentzeko eskubidea aitortuko zaie herritarrei.

Itun hauk guztiek, gainera, Europako Kontseiluaren esku utzi zuten hizkuntza erregimenen gaia eta Europako Kontseiluak araudi bakarra prestatu zuen 1958.urtean: ez zituzten hizkuntza ofizial eta lanerako hizkuntzak bereizi nahi izan, nazioarteko erakunde gehienetan hori egiten bazen ere. Europar Batasuna osatzen zuten herrialdeen hizkuntza ofizial guztiak erakunde berriaren hizkuntza ofizialak eta lanerako hizkuntzak izango ziren. Hasieran, hortaz, frantsesa, alemana, nederlandera eta italiera izan ziren. Denborarekin, Europar Batasuna handitu ahala, kide berrien hizkuntza ofizialak Erkidegoko hizkuntza ofizial eta lanerako hizkuntza bilakatu ziren. Gaur egungo Batasunak 23 hizkuntza ofizial eta lanerako hizkuntza ditu: alemana, frantsesa, ingelesa, daniera, nederlandera, gaztelania, italiera, greziera, portugesa, suediera, eslovakiera, esloveniera, estoniera, hungariera, letoniera, lituaniera, poloniera, txekiera, maltera, errumaniera, irlandera, bulgariera eta finlandiera.

*“Totes les llengües que tenen un status de llengua oficial en el conjunt del territori d’un estat membre, o al si de les institucions centrals d’un estat membre, sense compartirlo amb una altra llengua adquireixen la condició de llengua oficial i de treball de les institucions comunitàries”<sup>8</sup>.*

Eta zer esan nahi du honek? Erakundeak egindako ahozko nahiz idatzizko ekintza guztiak hizkuntza ofizial eta lanerako hizkuntza guztietara itzuli behar direla.

---

<sup>8</sup> MILIAN I MASSANA, A. (1990): “*Ordenamiento lingüístico*”. Institut d’estudis autonòmics. Barcelona.

Dena den, nahiz eta hizkuntzek ofizial eta lanerako izanagatik berdintasun egoeran egon behar, errealitatek ez du hori erakusten eta lanerako eta hizkuntza ofizialak diren guztiak ez daudela parekatuta esan daiteke duda barik. Zergatik? Aipatutako parekatzea gertatu ahal izateko, Europar Batasuneko funtzionarioek hizkuntza horiek guztiak erabiltzeko gai izan beharko lukete. Hori ezinezkoa izateaz gain, funtzionario hauei beren jatorrizko hizkuntzaz gain, Batasuneko beste hizkuntza bat jakitea baino ez zaie eskatzen. Hortaz, argi eta garbi ikusten da zeinen urrun dagoen egoera hau hizkuntzen benetako parekatzetik. Hasieratik konturatu ziren ezintasun horretaz eta honako erabakia hartu zuten: Europar Batasuneko erakunde bakoitzak (lehenago ikusi dugu zeintzuk diren hauek) bere hizkuntza araudia sortuko zuen. Erakunde batek lan hizkuntza bat baino gehiago duenean (kasu honetan asko dira, gainera), beharrezkoa da zein idatzi eta zein ahozko hitzaldi itzuliko den zein hizkuntzatan. Horretarako, eta lehenago esan dugun bezala, Europar Batasuna osatzen duten erakundeek eurek hizkuntza-araudiak sortu dituzte, euren artean aski ezberdinak direnak:

- **Europako Batzordea.** Erakunde honek “jardunbide hizkuntzak” aukeratzen ditu: ingelesa, frantsesa eta batzuetan, alemana. Batzordeak egindako hasierako proposamenak eta gerorako ohar eta aldaketak hizkuntza hauetan egiten dira, azkenengo proposamenera heldu arte. Kasu horretan, behin-betirako proposamenak eztabaidatu behar direnean, dokumentu guztiek hizkuntza-ofizial guztietan itzuliak egon behar dute.
- **Ministroen Kontseilua.** Batzar ofiziletan hizkuntza-ofizial guztiak erabiltzen badituzte ere, batzar informaletan ingelesa, frantsesa zein alemana erabiltzen da batez ere. Edota ingelesa eta frantsesa gehi momentuan-momentuko herrialdeko hizkuntza.
- **Europako Parlamentua.** Diputatu guztiek euren jatorrizko hizkuntzan mintzatzeko eskubidea dute, horretarako aldibereko itzulpena erabiltzen delarik.
- **Justizia Auzitegia.** Hizkuntza ofizialak erabiltzen dira Justizia Auzitegian, baina barneko erabilerari dagokionez, frantsesa da gehien bat erabilitako hizkuntza.



#### 4. EUROPAKO ITUN KONSTITUZIONALA

2004ean, Erroman, Europar Batasuneko Estatu-kideek Europako Itun Instituzionala sinatu zuten, gerora kritika eta eztabaida handia sortu zuena. Dena den, Batasuneko zenbait Estaturik ezezkoa eman zioten, eta hori dela eta, ez zen behar bezala martxan jarri. Honen ardatza 2007ko abenduaren 13an sinatutako Lisboako Ituna izango da, nahiz eta oinarrietan aldaketarik ez den egon. Inportantea da gure lanean Itun Konstituzionala, daukagun azken ereduetakoa delako Europar Batasuneko politikan.

Europako Itun konstituzionala Europarentzat konstituzio bat eratzen duen Ituna da. Itun honen arabera, Europar Batasunak bere kultura eta hizkuntza aniztasuna errespetatuko du eta berau zaintzeko eta garatzeko ardura hartzen du. Deana den, ez da zehazten zein den aitortzen den aniztasun hori. Itun honetan ere berresten da 1958tik hona jarraitutako joera.

Hizkuntza-irizpideen aldetik, eta hau da lan honen interesgunea, aski kritikatu izan da Europako Itun Konstituzionala hizkuntza-eskubideen aipurik ez delako bertan egiten, nahiz eta giza-eskubide eta oinarrizko eskubidea izan. Eta Europar Batasuneko hizkuntza-irizpideak aztertzen gaudela, ezinbestekoa da Hizkuntz Eskubideen Behatokiak<sup>9</sup> Itun Konstituzionalaren gainean egindako txostena aipatzea. Bertan Arantza Haranburuk kritikatu du Itunak 1958tik hona jarraitutako joera: “*desoreka handia da, izan ere European 60 hizkuntza komunitate dagoela esan ohi da, baina Itunean 21 besterik ez dira agertzen hizkuntza ofizial gisa*” (...)<sup>10</sup>.

Alde batetik, Itun Konstituzionalak saihesten du hizkuntza ofiziala terminoa erabiltzea. 1958ko 1. araudia jarraituz, hizkuntza ofizialak zerrendatzen ditu eta bertan ofizialtasuna jaso duten hizkuntzak erabili ahal izango direla Europar Batasuneko erakundeetan; Kontseiluan, Justizia Auzitegian, Parlamentuan, Banku Zentralean, Kontuen Auzitegian, etab.

---

<sup>9</sup> Hizkuntz Eskubideen Behatokia, (2005) “Europako Itun Konstituzionalaren azterketa hizkuntz eskubideen ikuspegitik”, txosten berezitua argitaratu gabea. Euskal Herria.

<sup>10</sup> Hizkuntz Eskubideen Behatokia (2005).

Behatokiak Itun Konstituzionala osatzen duten hiru zatien azterketa interesgarria egiten du, beti ere hizkuntza eskubideen ikuspegitik:

**1.zatia. Europar Batasunaren definizioari dagokiona.**

Gizakiaren duintasunaren begirunea, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbide-estatua eta giza eskubideen errespetua, gutxiengoetako pertsonen eskubideak ere barne, ditu Batasunak oinarritzko balio.

Ikusten dugu balioen artean gutxiengoen pertsonen eskubideak aipatzen dituenen, ez dela zehazten zer esan nahi duen “gutxiengo” hitzak. Ez da mugatzen “gutxiengo” definitzeko erabiltzen den erreferentea.

3. Batasunak bere kultura- eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuko du eta Europaren kultura-ondarea zaintzeko eta garatzeko ardura izango du.

Ezer esan baino lehen argitu beharra dago hizkuntza aniztasuna errespetatzeko aipua ez zela hasieran aurreikusi. EBLULek (European Bureau for Lesser-Used Languages) eta Eskualdeetako Batzordeak hainbat proposamen egin zituzten hizkuntza eskubide subjektiboak aitortzeko, hizkuntza gutxituetako kideei eskubide kolektiboak aitortzeko, etab. Gaitzetsi ziren proposamen horiek guztiak, hizkuntza aniztasuna errespetatzearena ezik. Eta hauxe da lehenago aipatu ditugun itunen aldean Itun Konstituzionalak dakarren berrikuntza: hizkuntza-aniztasunarekiko errespetua. Dena den, zer esan nahi du honek? Arantza Haranburu ere konturatu izan da aipamen honen eraginkortasun ezaz: *“errespetuak ez du inolako oinarri juridikorik eragiten, ezta hizkuntza politikak abian jartzeko beharrik ere”*<sup>11</sup>. “errespetu” hitza erabiltzean, ez da inolako ondorio juridikorik eragiten. Hortaz, hemendik ezin dira ondorioztatu hizkuntza aniztasunaren aldeko politikak.

---

<sup>11</sup> Hizkuntz Eskubideen Behatokia (2005).

Printzipioz, Itun Konstituzionalaren arabera, Estatuak dira Europar Batasuneko subjektuak, beraz, kultur eta hizkuntza-aniztasunaz hitz egiten denean, subjektu horietan oinarritutako aniztasunaz ari dela ondoriozta daiteke. Hortaz, ohar honek agian bultzatu beharko lituzke Estatuak bakoitzaren hizkuntza aniztasuna babestu eta suspertzera. Ez da horrelakorik gertatzen, ordea. Ez dirudi estatuei interesatzen zaienik eremu urriko hizkuntzen egoera Europak arautzea. Estatu gehienek ez dute nahi Europar Batasunak barne-hizkuntza politikaz ezer arautzerik. Besterik aipatu ezean, Estatu bakoitzaren borondatearen mende geratzen da hizkuntza aniztasuna babestu eta suspertzeko ahaleginak egitea. Estatu bakoitzak nahi bezala jokatzeko aukera dauka, Europar Batasunak inolako neurririk ezarri barik. Horrez gainera, aurrekoan “gutxiengo” hitzarekin gertatu bezala, oraingoan ere ez da “hizkuntza aniztasuna” terminoaren eremua mugatzen. Beraz, hau aipatzean ez dakigu zein hizkuntzez ari den: Itun Konstituzionalak aipatzen dituen hizkuntzez, Europako berezko hizkuntza guztiez edota Europan egun dauden hizkuntza guztiez. Honek, gainera, hizkuntza bakoitzaren beharrezanetan oinarritutako plangintza egokituak egiteko aukera zailtzen du.

2. Batasuneko herritarrak Konstituzioan ezarritako gozamenen eta betebeharren menpeko dira. Eskubide hauek dituzte:

d) Europako Parlamentuari eskea egiterakoan, Europako Arartekoarengana jotzerakoan eta Batasuneko erakunde eta organo aholku-emaleei zuzentzerakoan, Konstituzioaren hizkuntzetako bat erabiltzeko eskubidea dute, baita erantzuna hizkuntza horrexetan jasotzekoa ere.

Europar Batasuneko herritarrei hizkuntza erabiltzeko eskubidea aitortzen zaie, baina baita Konstituzioaren hizkuntzak erabiltzera mugatu ere. Aurrerapausoa izango litzateke Europako berezko hizkuntza guztiei erreferentzia egingo balie, baina ez da horrelakorik aipatzen.

### **2.zatia. Europar Batasuneko oinarrizko eskubideei dagokiona.**

*“Duintasuna, askatasuna, berdintasuna, elkartasuna, herritartasuna eta justizia”* aipatzen dira oinarrizko eskubideen artean. Hala ere, ez da inolako hizkuntza

eskubideen aipurik egiten. Hizkuntza eskubideak giza eskubideak dira, *Linguistic Human Rights*, eta horrela jaso beharko litzateke Itun Konstituzionalean. Baina ez da horrelakorik zehazten.

Giza-**duintasuna** urraezina dela dio Itunak, baina ez du ezer adierazten duintasuna erabat urraturik duen hizkuntza-eskubideak urratuta dituenaz. Gutxiagotutako hizkuntza askok egoera latzak jasaten dituzte, eta hau hizkuntza horien hiztunen duintasunaren kontrako eraso da, duda barik. Egoera horiek luzatu eta betikotzea dakar hizkuntza-duintasuna aipatu ez izate horrek.

Pentsamendurako edo adierazpen **askatasuna** aitortzen da Itunean, baina nola gauzatu hau hizkuntza-eskubideak aitortzen ez baditu? Nola da hau posible norberaren jatorrizko hizkuntza erabiltzeko eskubidea aitortu barik? Askatasuna galtzen da norberaren hizkuntza erabiltzeko eskubidea ukatzen denean.

**Berdintasunari** dagokionez, Itun Konstituzionalak dio bereizketa ororen kontra dagoela. Ulertezina da, aldiz, aitortutako berdintasun hori, gutxi-batzuei onartutako berdintasuna izanda. Gutxiagotutako hizkuntza komunitateei dagokienez ez da berdintasun aplikaziorik egiten. Eskubideen oinarrietan aitortutako berdintasuna hogeita hiru hizkuntza komunitateei baino ez zaie aitortzen.

Debekatuta dago bereizkeria oro, eta bereziki hauek: sexua, arraza, kolorea, herriko zein gizarteko jatorria, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa zein sinesteak, iritzi politikoak zein beste edozein iritzi, gutxiengo nazional batekoa izatea, ondarea, jaiotza, ezgaitasuna, adina nahiz joera sexuala direla-eta eragindako bereizkeriak.

Ikusten denez, hizkuntzak eragindako bereizkeria kontuan hartu eta gaitzesten ditu Itun Konstituzionalak, baina ez da bestelako urratsik ematen honen inguruan. Ez zaie onartzen Europako hizkun komunitate guztiei euren hizkuntza erabiltzeko eskubidea, nahiz eta hizkuntzaren araberrako bereizkeriarik onartzen ez den. Bereizkeriarik handiena Itun Konstituzionalak berak egiten du, kontraesan handian eroriz.

Batasunak kultura-aniztasuna, erlijio-aniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna errespetatzen ditu.

Lehen aipatu dugun bezala, EBLULEk eta Eskualdeetako Batzordeak proposeman ezberdinak egin zituen Itun Konstituzionalean sartzeko. Hauek guztiak ez ziren onartu eta kultur eta erlijio aniztasunari hizkuntza aniztasuna eranstea baino ez zuten lortu.

**Elkartasunaren** kontzeptuak gizarte-oreka bilatzen du, duenak ez duenari falta zaionari emanez. Eta benetan eredu izan beharko luke Europar Batasunak hizkuntza gutxiagotuei laguntza emanez, hots, falta zaiena emanez eta horrela, elkartasun lan bikaina gauzatuz. Modu honetan gizartea orekatuko litzateke, tentsio sozialak txikituko lirateke, etab. *“Elkartasuna praktika da eta ez araua”*. Teoria hau guztia praktikan jartzeko aukera ez du jasotzen Europako Itun Konstituzionalak.

**Herritartasun** sentimendua ere nekez eman dezake Konstituzio batek. Europako herritar sentitu ahal izateko, ezinezkoa da hizkuntza eskubideak bezalako oinarrizko eskubideak urraturik sentitzea. Oso zaila da oinarrizko giza-eskubideetako bat urratzen duen Erakundearen zati sentitzea, eta are gutxiago horretaz harro egotea.

Pertsona orok jo dezake Batasuneko erakundeetara Konstituzioaren hizkuntzetakoren batean, eta erantzuna ere hizkuntza horretan jaso beharko du.

Oso positiboa izan liteke aipu hau, modu teoriko eta praktikoa batean arautzen duelako hizkuntzen erabilera. Tamalez, hizkuntza batzuei baino ez zaie aitortzen Europar Batasuneko erakundeetan erabiliak izateko eskubideak. Beraz, komunitate gutxiagotuetako kideei ez zaie onartzen eskubide hau. Egoera honek zeharo apurtzen ditu Itun Konstituzionalak berak aldarrikatutako berdintasuna eta herritartasuna.

**Justiziaren** esparruan akusatu orok dauka defentsarako eskubidea, defenditua izateko eskubidea, hain zuzen ere. Justizioaren alorrean ez da ezer zehazten hizkuntza eskubideei buruz eta Justizia Auzitegiko Prozedura Araudira jo beharra dago hizkuntzaren inguruko arauak aztertzeko. Hemen prozedurarako hizkuntzak zehazten dira eta hauek bat datoz Itun Konstituzionalean agertzen direnekin. Honek talka egiten

du Nazioarteko zenbait itunekin, zeinek dioten herritar orok eskubidea duela leporatzen zaizkion delituak hizkuntza ulergarrian defenditzeko.

### **3.zatia. Batasunaren politika eta funtzionamenduari dagokiona.**

Zati honetan jasotako politika eta jardunak zehaztu eta burutzerakoan, sexua, arraza edo jatorria, erlijioa edo uste sendoak, ezgaitasuna, adina edo joera sexuala arrazoi dituen bereizkeria ororen kontra borrokatzen ahaleginduko da Batasuna.

Arrazoi ezberdinengatik (sexua, arraza, jatorria, erlijioa, uste sendoak, ezgaitasuna, adina, joera sexuala, ...) sortutako bereizkeriaren kontra borrokatu nahi du Europar Batasunak, baina ez hizkuntzarengatik gertatutako bereizkeriaren aurka. Beraz, Europako legeek ez dute neurririk hartuko hizkuntzaren ondorioz gertatutako bereizkeriaren kontra borrokatzeko.

Zati honetan ere aipatzen da, aurretiaz ikusi dugun bezala eta ondoren ikusiko dugun aipuan ziurtatzen den moduan, herritar orok bere hizkuntza erabil dezakeela Europar Batasuneko edozein erakunderi zuzentzen zaionean, Konstituzioak aitortzen duen edozein hizkuntza, noski:

Batasuneko herritar orok, I-10, artikuluko 2. paragrafoaren d) idatz-zatiari jarraituz, erakunde zein organoetara jotzerakoan eta hortik erantzuna jasotzerakoan, IV-448 artikuluko 1. Paragrafoan jasota dauden hizkuntzetakoren bat erabiltzeko eskubidea izango du. Horri lotuta, I-10. Artikuluko 2. paragrafoaren d) idatz-zatian jasotako erakunde eta organoak honako hauexek dira: I.19. artikuluko 1. paragrafoko bigarren lerroaldean eta I-30, I-31 eta I-32 artikuluetan aipatutakoak eta Europako Arartekoa.

Bestalde, eta 1958ko 1.araudian ezarri izan zen bezala, Itun Kostituzionalean jasotzen diren hizkuntzak besterik ez dira kontuan hartuko. Agian, hizkuntza araubidea ezartzeko araudia zehazten denean, hainbat funtzio betetzeko zenbait hizkuntza aukera litezke; hizkuntza gutxiagotuak ez lirateke borroka horretan sartuko, ordea.

Eta azkenik honakoa gehitzen da 3.zati honi amaiera emateko:

1. Itun hau ale bakar batean idatzi da hurrengo hizkuntzetan: alemanez, txekieraz, danieraz, eslovakieraz, eslovenieraz, gaztelaniaz, estonieraz, suomieraz, frantsesez, grekoz, hungarieraz, ingelesez, irlandera, italieraz, letonieraz, lituanieraz, malteraz, nederlandera, polonieraz, portugesez eta suedieraz.
2. Itun hau estatu kideek zehazten dituzten beste hizkuntzetara itzuli ahal izango da, baldin eta estatu horietako konstituzio-ordenamenduaren arabera maila ofizial badute lurralde osoan edo zati batean. Kasuan kasuko estatu kideak itzulpen horien kopia ziurtatua bidaliko du, Kontseiluaren artxiboetan gordetzeko.

448.1 artikuluan zehaztutako hizkuntzak dira hauek, Itun Kostituzionalak aitortzen dituen hizkuntzak, hain zuzen ere. Hemen agertzen ez diren hizkuntzen hitzunei, euskara kasu, urratu egiten zaizkie sistematikoki hizkuntza eskubideak. Bigarren puntuak dioen moduan Itun Kostituzionalaren bertsioak egingo dira gainontzeko hizkuntzetan (euskaraz ere egin da) bai, baina ez da berdintasunik, Itunak behin eta berriro aipatu izan duen berdintasunik, hizkuntza komunitateen artean.

Estatuen esku uzten du Itunak beste hizkuntzetara itzultzeko aukera, eta gainera derrigorrezko baldintza da hizkuntza horiek guztiak ofizialak izatea. Hortaz, hizkuntza askok ez du bere bertsioa izango: britaniera, korsikera, etab.

Ikusitako guztia dela medio, hizkuntza eskubideen aldetik egindako ekarpen txikiagatik kritika ugari jasan ditu Europako Itun Konstituzionalak. Euskaltzaleen artetik ere oso jarrera kritikoak nagusitu dira. Oso laburpen egokia iruditu zait Ukberri aldizkari digitalera <sup>12</sup> Euskal Herrian Euskaraz-ek igorritako manifestuak adierazten duena:

- 1. Hizkuntza eskubideak ez dira oinarritzko giza eskubideak. Europako Itun Konstituzionalean herritarrei hainbat eskubide aitortzen zaizkie eta horien artean badira oinarritzko giza eskubide zenbait. Hizkuntz eskubideak ez dira jasotzen.*
- 2. Eskubide ekonomikoek hizkuntz eskubideek baino garrantzi handiagoa dute. Itun Konstituzionalak jaso egiten ditu jabetza pribaturako eskubidea edota enpresa-eskubidea; ez, ordez, hizkuntza eskubidea.*
- 3. Hizkuntza komunitateen inguruko aipurik ez dago. Estatuen Europa eraikitzeke tresna da Itun Konstituzionala. Europaren benetako aniztasunari ez zaio erreparatzen. Hizkuntza komunitatearen erreferentziarik ez dago.*
- 4. Geure hizkuntzak zokoratu egiten ditu. Europako berezko hizkuntz komunitate asko desagerrarazi egiten ditu Europako mapatik, bai eta eraiki nahi duten Europa berri horretatik ere.*
- 5. Europako herritarren arteko bereizkeria eragingo du. Geure hizkuntzetako hiztunoi debekatu egingo zaigu Batasuneko administrazioekin, Arartekoarekin edota bestelako erakundeekin zerbitzua geure hizkuntzan eskatzea eta jasotzea.*
- 6. Europar hiritar gaitu, soilik, Ituneko hizkuntza batean jardunez gero. Ez bestela. Europako hiritartasuna ezartzean, Europako hiritarrei ituneko hizkuntza batean jarduteko eskubidea aitortzen die eta hizkuntza horretan soilik jardun dezakete europar hiritarrek.*
- 7. Europaz kanpoko hizkuntzen status eta tratu bera izango dugu. Munduko beste*

---

<sup>12</sup> Ukberri Uribe Kosta eta Erandioko agerkari digitala, 2005, EHE-k igorritako deklarazioa.



*hizkuntzen mailan jarriko dituzte gure hizkuntzak.*

- 8. Geure hizkuntzak ez dira inon egongo presente. Zuzendaritzako proiektuetan, herritarrei begirako dokumentazioan, web guneetan... Ministroen eta Estatu Buruen Kontseiluan, komisarioen prentsaurrekoetan... geure hizkuntzek ez dute lekurik izango.*
- 9. Ordezkarri politikoek ezin izango dute berezko hizkuntza erabili. Bruselako parlamentuak ez die aukerarik emango gure ordezkariari beren hizkuntza erabiltzeko eta berezko ez duten hizkuntza bati eutsi beharko diote une oro.*
- 10. Ituna geure hizkuntzetara itzultzeko aukerara mugatuko dute sustapen guztia. Hori izango da geure hizkuntzei eskainiko zaien bakarra, Itun Konstituzionalaren itzulpena eta beti ere itzulpen hori ematea hizkuntz komunitate hauek menderatzen dituzten estatuen esku egongo da.*
- 11. Geure hizkuntzen normalizazioa galgatu du. Izan ere, Europa mailako araudiaren mende egongo gara eta horren arabera, esaterako, tokiko gobernuek ezin izango dute behartu etiketak geure hizkuntzetan idaztera.*
- 12. Ez dituzte abian jarriko geure hizkuntzen garapenerako eta sustapenerako proiektuak. Orain arte aniztasunean bildurik leloari loturik bideratu diren ekimen ia guztiak: Socrates, Leonardo... estatuetakozko hizkuntza ofizialen sustapenerako izan dira.*
- 13. Estatuetakozko hizkuntzen arteko lehia sustatuko dute eta geure hizkuntzak joko horretatik at utziko dituzte. Lan-hizkuntzen inguruko lehiari hasiera ematen diotenean, geure hizkuntzak are ikusezinagoak izango dira.*
- 14. Hizkuntzen arteko hierarkia nabarmenagoa eragingo du. Hierarkia horren arabera geure hizkuntzak azken mailan egongo dira.*

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak ere argi ikusten ditu Itun Konstituzionalaren ahulgune hauek guztiak eta gutxiagotutako hizkuntzei, eta zehazki euskarari, ekar diezaiekeen ondorio negargarriak. Hori medio, honako ondorio eta proposamenak egiten ditu, Itun Konstituzionalak kontuan hartu beharrekoak:

Hizkuntza eskubideak jasotzen ez direnez, hizkuntzen existentzia bera ukatzen da. Horregatik ezinbestekoa da giza-eskubide guztiak eta bereizkeria eza bermatzeko konpromisoak eragiten dituzten hizkuntza-ondorioak adieraztea.

Aniztasuna aipatu bai, baina honen esanahi eta mugak ez zehazteak hizkuntzen beharrei erantzun egokia ematea zailtzen du, plangintzak burutzeko aukera iluntzen du. Beraz, Itunak “aniztasun” hitzaren definizio orekatu eta erreala ekarri beharko luke, hizkuntzen arteko hierarkiarik ez gertatzeko.

Norbera bere hizkuntza erabiltzeko eskubidea 23 hizkuntzetara mugatzean, gainontzeko hizkuntza komunitateetako hiztunen hizkuntza eskubideak urratzen ditu sistematikoki. Europako hizkuntza guztiak agertu beharko lirateke, eskubide urraketarik eta bereizkeriarik gerta ez daitezen.

Hizkuntzei estatus ofiziala ez esleitzean hizkuntzen normalizazio bera galgaten da. Hortaz, ofizialak ez diren hizkuntzen ofizialtasuna esleitu beharko litzateke, beste hizkuntzen estatus bera izateko, eta horrela, Batasuneko erakundeetan kontuan hartuak izan daitezen.

## 5. EUROPAR BATASUNAK HIZKUNTZEN ALDE BULTZATUTAKO EKINTZAK

Europar Batasunaren barne-funtzionamenduari dagokionez, ikusi dugu ekarpen ia hutsalak egiten direla eremu urriko hizkuntzak babestu eta suspertzeko. Dena den, Europar Batasunak, aurretik esan dugu hau, kultura- eta hizkuntza-aniztasunari eusteko apustua egiten du<sup>13</sup>. Neurritz beti ere, Batasunak onartutako hizkuntzen aniztasunaren aldeko apustua baino ez du egiten eta. Horrela europarrek atzerriko bi hizkuntza erabiltzeko gaitasuna bultzatu nahi izan du. Eremu europar komuna eratuz joan den heinean, komunikatzeko hizkuntza komunak izateko premia ere nagusituz joan da. Hortaz, europarrek euren ama-hizkuntzaz gain beste bi hizkuntza ikasteko helburua hedatu zen 1960tik aurrera. Xede hori lortzeko, Batzordeak zenbait ekimen martxan jarri ditu Europar Batasuneko Estatuetan atzerriko hizkuntzak, Europar Batasuneko herriren batean ofizial direnak noski, irakasteko. Gaur egun, ekimen horiek guztiak *Socrates* programan biltzen dira. Aldi berean, programa honek beste azpi-programa batzuek osatzen da: *Lingua*, *Leonardo* (lanbide hezkuntzara bideratua), *Comenius* (eskoletarako programa) eta *Erasmus* (unibertsitateko ikasleak Europako beste herrialde batzuetara ikastera bideratua). Dena den, programa guzti horiek ez dute balio izan Europako hizkuntza-aniztasunari eusteko. Programa hauetan parte hartzen dutenen kopururik handiena gehien hitz egiten diren hizkuntzak ikastera joaten dira: ingelesa, frantsesa, alemana, gaztelania eta italiera.

Europar Batasuneko hizkuntza-ofizial ez diren “eskualdeko edo gutxien hizkuntzak” deitutakoen alde ezer gutxi egin da Europar Batasunean. Ikusi dugun moduan araudirik ez da existitzen hizkuntza hauen aldeko ekimenik bultzatzen duenik. Europar Batasunetik ez da hitzik esaten gutxiagotutako hizkuntzen inguruan. Badira, hala ere, Europar Batasunetik bideratutako zenbait ekimen eta dinamika eremu urriko hizkuntzak babesteari dagokionez.

Europar Parlamentutik zerbait esan izan da. Parlamentuak zenbaitetan adierazi du hizkuntza horiekiko interesa eta horien aldeko neurriak hartzeko eskatu dio Batzordeari. Gauzak horrela, Batzordearen aldetik bultzatu dira zenbait ekimen:

---

<sup>13</sup> SIGUAN (2004).

- Hizkuntza horien egoerari buruzko txostenak sustatu ditu (Euromosaic). Hau da, Europako Batasunen eremu urriko hizkuntzen talde linguistikoak hobeto ezagutzeko, Batzordeak azterketa bat egiteko esakatu zuen. Azterketa horren bidez, hizkuntzei buruzko informazioa jaso nahi izan zuen, eta baita hizkuntza horiek garatzeko zituzten arazoak aztertu ere.
- Dirulaguntzak eman dizkio gutxiagotutako hizkuntzen egoeraren azterketan diharduen erakundeari, Gutxien Hedatutako Hizkuntzen aldeko Europako Buroari (EBLUL), hain zuzen ere. 1982.urtean sortu zen Europar Parlamentuaren ekimenez EBLUL gobernu kanpoko erakunde independentea. Europar Batasunak finantziatutako erakundea da eta interes europarra onartzen zaio. EBLULEk bultzatutako ekintzen artean ondoakoak nagusitzen dira:
  - Europar Batasuneko Batzordeen sareen bidez, EBLULEk erregio edo gutxiengon hizkuntza-komunitateak ordezkatzeko dituzten Euren interes komunak sustatu eta euren eta europar erakundeen arteko komunikabide bezala jokatu du.
  - Erregio edo Gutxiengoen hizkuntzei buruzko aholku eta berri ematen die agintariei, hedabideei, komunitate akademikoari eta herritarrei orokorrean.
  - Eremu urriko hizkuntzen komunitateek abian jarritako ekintzak babesten ditu: aholkularitza, informazioa, dirulaguntzak, etab.
  - Gutxiagotutako hizkuntzen inguruko Europa mailako ekintzak koordinatzen ditu.
- Hizkuntza horietan egindako ekintza pedagogikoak ordaindu zituen.
- Europako Parlamentuak eta Eskualdeetako Komiteak onartu dituzten ebazpen eta irizpen batzuk. Besteak beste, hauexek:

[Europako Parlamentuak 2003ko irailaren 4an emandako ebazpena, horren bidez Batzordeari eman zitzaizkion gomendioekin batera, eskualde bateko edo zabalkunde txikiko hizkuntza europarrei buruzkoa - Europar Batasunean diren hiztun gutxiko hizkuntzak, zabalkuntza eta kultura-aniztasunari begira](#)

[Europako Parlamentuak 2001eko abenduaren 13an emandako ebazpena, eskualde bateko eta zabalkunde txikiko hizkuntza europarrei buruzkoa](#)

- [Eskualdeetako Komiteak 2001eko ekainaren 13an emandako irizpena, eskualde bateko edo hiztun gutxiko hizkuntzak sustatzeko eta babesteko](#)
- Europar Batasunaren erakundeetan, ondoren azalduko denez, hizkuntza horiek erabili ahal izateko nolabaiteko aitorpena eta aukera.
- MERCATOR, gutxiengo hizkuntzei eta kulturei buruzko informazioen trukea hobetzea helburu duen sarea. Hiru lan-ildo ditu: hedabideak (Galesen), Hezkuntza (Frisian) eta Legeria (Katalunian).

Dena den, ekintza hauetako zenbait moztu egin ziren Batzordearen aholkularitza juridikoak ez zuelako argi ikusten ekintzok Batasunaren Fundazio Itunarekin bat zetozenik.

Hortaz, argi dagoen gauza bakarra da Europar Batasunak anbiguotasun itzelak erakutsi izan dituela hizkuntza-aniztasunaren gaiari dagokionez. Alde batetik, hizkuntza-aniztasuna defendatu du, baina aniztasun horri mugak jarritz.

#### **a. ERREGIO EDO GUTXIENGO HIZKUNTZEN EUROPAKO ITUNA (1992).**

Zalantza barik Erregio edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Ituna edo Euroituna izan da Europar Batasunak eremu urriko hizkuntzen alde hartutako neurririk garrantzitsuena. 1992.urtean Europako Batzordeak onartua, aberastasun kulturala babesteko sortu zen:

Kontuan harturik Europako erregio edo gutxiengo hizkuntza historikoak babestea, hauetariko batzuk desagertzeko arriskuan egonik, Europa eta bere tradizioen kultura-aberastasuna mantentzen eta garatzen laguntzen duela.

Deiturak gutxiagotutako hizkuntzei erreferentzia egiten badie ere, kultura babesteko tresna moduan eratu zen, ez hizkuntzak. Gainera, ez du eskubiderik aitortzen, ez die eremu urriko hizkuntzei ofizial izateko eskubiderik onartzen. Erabiliak izateko eskubidea onartzen die, besterik ez:

Kontuan harturik eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bat bizitza pribatuan edo publikoan erabiltzea preskribiezinezko eskubidea dela, Nazio Batuen Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean jasotako printzipioekin bat, eta Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Kontseiluaren Hitzarmenaren espirituarekin bat [...].

Hala ere, Estatuak euren betebeharrak ezartzen dizkie hizkuntza horien erabilera bermatzeko. Zeharka gutxiagotutako hizkuntzen babes juridiko gisa har bagenezake ere, hizkuntzen babesarako tresnatzat har dezakegu. Esan dugu eremu urriko hizkuntzen zeharkako babes juridiko gisa uler dezakegula, baina; edozein Estatu legeak ezin baitira Euroitunak ezartzen duenaren kontra joan. Haratago joan daiteke, baina ez labur geratu. Estatu sinatzaileek ez dute konpromisorik hartzen berau sinatzean, konpromisoak hartzeko Karta berretsi beharra dago. Berretsi dituztenen artean honako Estatuak ditugu: Armenia, Austria, Kroazia, Txekiar Errepublika, Danimarka, Alemania, Hungaria, Liechtenstein, Luxenburgo, Montenegro, Holanda, Norvegia, Serbia, Eslovakia, Espainia, Suedia, Suitza, Ukraina eta Erresuma Batua. Frantziak ez du Euroituna berretsi.

Edukiari dagokionez, Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Itunak 23 artikulua jasotzen ditu, 5 atal ezberdinetan banatuak (Ruíz Vieytez, 2003):<sup>14</sup>

---

<sup>14</sup> RUÍZ VIEYTEZ, E. (2003): *EZGHBE, Gutxiengoen hizkuntzak babesteko trenza berria ote?. In Erregio zein gutxiengoen Hizkuntzei buruzko Eurokarta: bere ekarpenaz ikuspegi bat. Iruñea: Euskara Kultur Elkargoa.*

**ERREGIO EDO GUTXIENGOEN HIZKUNTZEN EUROPAKO ITUNA**

<b>I.ATALA</b>	<b>II. ATALA</b>	<b>III.ATALA</b>	<b>IV.ATALA</b>	<b>V.ATALA</b>
<b>1-6 art.</b>	<b>7 art.</b>	<b>8-14 art.</b>	<b>15-17 art.</b>	<b>18-22 art.</b>
<b>Xedapen orokorrak</b>	<b>Hizkuntzen babes</b>	<b>Hizkuntzen babes</b>	<b>Ezarpena</b>	<b>Azken xedapenak</b>
Definizioa.	Helburuak.	Babeserako euri zehatzak: <i>Hezkuntzan</i>	Estatuetako txostenak	Indarrean sartzea
Gutxieneko betebeharrak.	Printzipioak	<i>Justizian</i> <i>Administrazioan</i> <i>Hedabideetan</i>	Adituen Batzordearen txostena	Erreserbak
	Konpromiso orokorrak.	<i>Bizitza kulturean</i> <i>Bizitza-ekonomiko-sozialean</i>	Ministro Batzordearen gomendioak	Salaketak

**I.ATALA**

*Erregio edo Gutxiengoan hizkuntzen definizioa agertzen da hemen:*

- i) Estatu bateko lurraldean bertako biztanleek, Estatuko biztanleriaren barruan gutxiengoa izanik, tradizioz hitz egiten dituztenak; eta*
- ii) hizkuntzok ez dira Estatu horretako hizkuntza ofizialak izango; eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen barruan ez dira sartuko estatuko hizkuntza ofizialaren dialektoak, ez etorkinen hizkuntzak;*
- iii) “eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza erabiltzen den lurraldea” da Gutun honetan aurreikusitako babes- eta sustapen-neurriak hartzea justifikatzeko besteko hitun-kopurua duen hizkuntzaren geografia-eremua;*

*iv) “lurraldearik gabeko hizkuntzak” dira Estatuko gainontzeko biztanleek hitz egiten dituzten hizkuntzak, baina Estatuko lurraldean tradizioz hitz egiten diren arren, bertako geografia-eremu jakin bati lotu ezin dakizkionak.*

## **II. ATALA**

Euroitunaren konpromiso orokorrak azaltzen dira bigarren atal honetan. Azpimarra dezakegu Estatu bakoitzak ezin duela hautatu zein hizkuntzari aplikatu konpromiso hauek, aurreko atalean azaldutako hizkuntzei aplikatu beharrekoa da.

## **III. ATALA**

Konpromiso orokorrak azaldu ondoren, zehatzak datozkigu hemen 7 eremu ezberdinetan banatuta:

1. Irakaskuntza
2. Justizia
3. Administrazioako agintariak eta zerbitzu publikoak
4. Hedabideak
5. Kultur jarduerak eta ekipamenduak
6. Ekonomia- eta gizarte-bizitza.
7. Mugaz haraindiko elkartrukeak.

Sailkatzen diren konpromiso guzti hauetatik Estatu bakoitzak gutxienez 35 hartu behar ditu. Atal honetan Estatu bakoitzak aukeratuko du zein hizkuntzari aplikatuko dizkion.

## **IV. ATALA**



Hartutako konpromisoen aplikazioa zehazten da laugarren atal honetan. Horrela, Euroituna berretsi eta urte batera Estatuak betetze-maila zehazten duen txostena aurkeztu beharko diote Kontseiluak izendatutako Adituen Batzorde bati. Horrez gainera, Estatuetakako legezko erakundeek ere helaraz diezaizkiokite txostenak Batzorde honi beste iritzi batzuk ere kontuan hartzeko. Adostasuna (bi herenak) izanez gero, adituak Estatu hauetara bisitak egin ditzakete egoeraren berri zuzenean izateko. Dokumentazio guztia bilduta, Adituen Batzordeak azken txostena prestatu eta Europako Kontseiluko Ministroen batzordeari helazten dio. Era berean, beharrezkotzat joz gero, Batzordeak aholkuak eman diezaizkioke Estatuari.

## **V.ATALA**

Azkenengo atal honek azken xedapenak jasotzen ditu; hala nola: Itunaren sinatze eta berrestea, indarrean jartzea, erreserba-aukera, etab.

## 6. EUSKARA EUROPAR BATASUNEAN

Euskara “erregio edo gutxiengo hizkuntza” europarra da, eta zehazki Euskal Herriaren berezko eta jatorrizko hizkuntza. 1979ko Espainiako Autonomia Estatutuaren 6. artikulua aitortzen duenez, hizkuntza ofiziala da euskara Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), gaztelaniarekin batera. Ofizialtasun status horretan oinarrituta, Eusko Jaurlaritzatik hainbat lan bideratu da EAetik kanpo euskarak, hizkuntza den neurrian, presentzia izan dezan eta erabilia izan dadin<sup>15</sup>.

Europari dagokionez, Europako Kontseiluak Erregio edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Ituna onartu zuen 1992an, ikusi dugun bezala. Aipatutako mugak alde batera utzita esan genezeke horrek lan-ildo berri bati ekin ziola, euskara eta euskararen antzera babes berezia behar duten hizkuntzak normaldu, ezagutu eta errespetatzeari, alegia. Estatu Espainiarrak Euroituna berretsi zuen 2001eko otsailaren 2an.

EAEn, Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak, zenbait komunikatu eta adierazpenen bitartez euskarak Europar Batasunean falta duen eta izan beharko lukeen izaera ofiziala aldarrikatu dute, hau da Kontseiluaren 1958ko araudian aitortzen diren hizkuntza ofizialen artean euskara ere egoteko.

2005eko ekainaren 13an Kontseiluak onartu zuen Kontseiluan bertan eta Europar Batasuneko beste zenbait erakundetan euskara eta honekin batera beste hizkuntza batzuk erabili ahal izateko nolabaiteko aitorten ofiziala, 1/1958 Erregelamenduak aitortutako erabateko ofizialtasunaren statusa ez lortu arren.

Kontseiluaren iritziz, herritarrek erakundeekin dituzten harremanetan beste hizkuntza batzuk erabiltzeko aukera izatea garrantzitsua da, Europar Batasuneko proiektu politikoarekin duten identifikazioa indartzeko.

---

<sup>15</sup> EUSKO JAURLARITZA. [www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net).

Ondorio horietan oinarrituta, Estatu espainiarrak administrazio-akordioak sinatu ditu Europar Batasuneko hainbat instituzio eta organorekin, gaztelaniaz beste hizkuntza ofizial batzuk erabiltzeko aukera egon dadin haien baitan: Europar Batasuneko Kontseiluarekin, Eskualdeetako Komitearekin, Europako Batzordearekin, Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearekin, Europar Parlamentuarekin eta Europako Arartekoarekin.

Aipatutako erakundeekin sinatutako akordio horiei esker, mugak izan arren, aukera ematen zaio euskarari Europar Batasunean nolabaiteko erabilera ofiziala izan dezan:

- Herritarrek Europar Batasunaren erakunde eta organoetara igorritako komunikazioak euskaraz idazteko aukera.
- Kontseiluak eta Eskualdeetako Komiteak egindako bilkuretan euskaraz ahoz parte hartzeko aukera.
- Europako Parlamentuak eta Kontseiluak elkarrekin erabakitzeko prozedura erabilia onartutako Europako Erkidegoko legeria euskaraz argitaratzeko aukera

## **7. ONDORIOAK. EUROPAR BATASUNEAN ABIAN JAR DAITEKEEN HIZKUNTZA-POLITIKA.**

Europar Batasunaren hizkuntza-politika ezak gabezi handiak sortzen ditu gutxiengoan hizkuntzen artean. Hortaz, hizkuntza eskubideak gauza daitezen ezinbestekoa da Europa eraikitzeko Batasunak duen proiektuarekin bat datorren hizkuntza-politika eratzea.

Konpromiso bat hartu beharko luke Europar Batasunak Europako hizkuntza aniztasunarekiko, eta berau Estatu kideen hizkuntza ofizialetara ez dela mugatzen azpimarratu beharko luke. Aniztasuna definiturik ez egoteak hizkuntzen beharrei erantzutea zailtzen du, plangintza egokituak egiteko aukera ez du errazten. Horrexegatik ezinbestekoa da *“Itunak aniztasunaren definizio orekatua eta erreala agertzea, Europako berezko hizkuntzen arteko hierarkiarik gerta ez dadin”*<sup>16</sup>.

Giza-eskubideen eta diskriminaziorik ezaren aldeko konpromisoan ondorioztatzen dituen hizkuntza-ondorioak zeintzuk diren argitu beharko luke, horrela Estatuak errespetatu beharreko banakako eta taldeko hizkuntza-eskubideak zehaztuz. Hizkuntz eskubideak ez jasotzeak horien existentzia bera ere ukatzen du.

Europar Batasuneko herritarrek bere hizkuntza erabiltzeko eskubidea Europako 23 hizkuntzatarra mugatuta daukate, hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoa legez arautuz. Horrexegatik ezinbestekoa da Itunak 448. artikuluan eremu urriko hizkuntzak ere jasotzea, hizkuntza erabiltzeko eskaintzen dituen aukerak baliatu ahal izateko.

Hizkuntzari estatus ofiziala ez onartzeak normalizazioa bera garalazi dezake, izan ere. Horrexegatik ezinbestekoa da 1/1958 erregelamenduan gutxiagotutako hizkuntzak ere ofizialak izango direla agertzea, hori izango baita aukera bakarra beste hizkuntzen estatus bera izateko. Ofizialtasun izaera aitortuta izanik baino ezin dute eremu urriko hizkuntzek Batasuneko erakundeetan ere kontuan hartuak izan.

---

<sup>16</sup> Hizkuntz Eskubideen Behatokia (2005).

Europar Batasunak hizkuntzen irakaskuntza eta ezagutzaren alde abian jarritako ekintzen xedea honakoa izan beharko luke: Europako hizkuntza-aniztasunari eustea eta aniztasun hori sendotzea. Aurretik aipatu izan dugu Europar Batasunak programa ezberdinen bidez saiatu dela hizkuntza-aniztasuna hedatzen. Programa horiek jarri beharko lirateke eremu urriko hizkuntzen esku baita ere. Horrela irakaskuntzak aukera emango lieke gutxiagotutako hizkuntza hauei munduan ezagutuak izateko.

Helburu nagusietako bat Europako hizkuntza guztiei sistema informatikoetan, itzulpengintza automatikoan eta Interneten sartzen laguntzea izan beharko luke. *“Autore batzuen arabera, globalizazioa hizkuntza gutxiagotuen mesederako izango da (...) komunikaziorako teknologia berrien hedapena, hizkuntza gutxiagotuak babesteko erabili ahal izango da eta, beraz, globalizazioaren ondorioak kultura eta gutxiagotutako hizkuntzen mesedeztan erabili ahal izango dira.”*<sup>17</sup> Sarean sartutako materiala mundu osoan zehar hedatzen da erraz, horrela aukera handiak sortzen zaizkie gutxiagotutako hizkuntzei munduan zehar ezagutzera emateko, *“zerbait esateko edota erakusteko duenak bere mezua munduratzeko aukera ezin hobekak izango ditu”*<sup>18</sup>. Horrez gainera, teknologia berrien hedatzearekin batera, euren merketzea dator ezinbestean, eta honela herri komunikabideak ugalduz doaz abiadura galantean. Bestalde, aurrerapen teknologikoak medio eta itzulpen automatikoaren laguntzarekin, hizkuntzen arteko mugatik gainditzeko errazak izango dira.

Jurisprudentzia sistematizatu beharko litzateke Batasuneko herritar guztien hizkuntza-eskubide eta betebeharrak biltzen dituen kodea sortuz. Hizkuntza-aniztasunarekiko errespetua aipatzeak ez du hizkuntzenganako babesik ziurtazen. Ez da nahikoa, eta beraz, hizkuntza-irizpideak arautuko dituen araudi baten beharra dago ezinbestean. Eremu urriko hizkuntza hauei, Europar Batasuneko gainontzeko hizkuntzei onartzen zaien ofizialtasuna onartu behar zaie. Praktikan jarri behar da Europar Batasunak predikatzen duen berdintasunaren, herritartasunaren, justiziaren, askatasunaren eta elkartasunaren ideia. Kontraesanak alde batera utzi eta hizkuntza hauei oinarrizko giza-eskubide izanagatik dagokina eman behar zaie. Eta hauxe jurisprudentiaren bidez egiten ez bada, ez du inolako eraginik izango.

---

<sup>17</sup> JUARISTI (2001).

<sup>18</sup> JUARISTI (2001).

Laburbilduz esan genezake, hainbat izan direla Europar Batasunaren itzalpean onartu eta sinatu diren Itunak, ikusi dugun bezala; baina hauetan ez dela Europako hizkuntza-aniztasuna jurisprudentziaren bitartez babesteko inolako neurririk hartu. Erregio edo gutxiengoen hizkuntzen Europako Ituna izan da eremu urriko hizkuntzen aldeko borrokan eragin handiena izan duena. Ez da nahikoa, ordea. Estatu kideei berau sinatzeko askatasuna uzten zaie (nahi ez duenak ez du zertan onartu), eta ez dira bertan ezarritako neurri guztiak nahita ez bete behar. Zerbait da, baina; eta gutxiagotutako hizkuntzak babesteko bide malkar honetan ez gaude edozein lekutik datorren edozein ekimen alboratzeko edota lar kritikatzeko moduan. Txikia da, berriz, Europar Batasunak hizkuntza-politika bat ezartzeko egindako ahalegina. Hizkuntza-politika gogor baten falta duda ezina da, eta berau lortzera bideratu behar dira egitasmo eta ahalegin guztiak.

## 8. BIBLIOGRAFIA.

AREJITA, A., MANTEROLA, A., OAR-ARTETA, S. (2007): *Euskararen geografia historikoa*. Eusko Jaurlaritza.

EUROMOSAIC 1992.

EUROPAKO BATASUNAREN ERAIKUNTZA. [www.hiru.com](http://www.hiru.com)

EUSKO JAURLARITZA. [www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net)

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA, (2005): “*Europako Itun*

*Konstituzionalaren azterketa hizkuntz eskubideen ikuspegitik*”, txosten berezitua argitaratu gabea. Euskal Herria.

JUARISTI, P. (2001): “*Euskal Herria Globalizazioaren aurrean*”. Euskaltzaindia-BBK. Bilbo.

JUARISTI, P. (2006): JAGON JARDUNALDIAK. Bilbo.

MILIAN I MASSANA, A. (1990): “*Ordenamiento lingüístico*”. Institut d’estudis autonòmics. Barcelona.

RÚIZ VIEYTEZ, E. (2003): “*EZGHBE, Gutxiengoen hizkuntzak babesteko trenza berria ote?*” In Erregio zein gutxiengoen hizkuntzei buruzko Eurokarta: bere ekarpenaz ikuspegi bat. Iruñea: Euskara Kultur Elkargoa.

SIGUAN, M. (2003): “*Hizkuntza ofizialak eta hizkuntz aniztasuna Europar Batasunean*”. Munduko Hizkuntzen Amarauna.

SIGUAN, M. (2004): “*La política lingüística de la Unión Europea*”. Real Instituto Elcano.